

COMPLIANCE PENALEKO POLITIKA



AMPOn erabateko konpromisoa dugu alor guztietako bikaintasunarekin, baita gure erantzukizun etiko eta legalaren arloko bikaintasunarekin ere. Hori dela eta, adierazpen honen bidez, modu esplizituan eta irmotasunez aditzera eman nahi dugu “zero tolerantziaz” jardungo dugula edozein delituren aurrean, delitu oro debekatuz eta delitu ororen aurka irmo eginez. Kultura hori, beraz, gure enpresa-xedeetan eta gure jarduera osoan hedatu eta txertatuko dugu, nola Espainian, hala AMPO ezarrita dagoen beste edozein herrialdetan.

AMPOko kide guztiek, administratzaileak izan, bazkideak izan edo plantillako gainerako langileak izan —finkoak zein aldi baterakoak, halakorik balego—, politika honen betekizunak bete beharko dituzte, baita politika hau betetzeko abian jarri dugun Compliance Penaleko Sistemarenak ere, Jokabide Kodea eta prebentziozko kontrolak eta prozedurak barnean hartuta.

Politika hau aplikatzekoa izango zaie, halaber, gurekin harremanetan dauden hirugarrenei; hortaz, behar bezala emango zaie politika honen berri, eta gure erakundearekin duten harremanetan hari atxikitzeko eta hura betetzeko eskatuko zaie. Horrez gain, politika hau edozein interesdunen esku jartzen dugu egungo komunikazio publikorako bideetan (www.ampo.com).

Erakundeak zigorrek betetzeko ezarri duen sisteman, gure arrisku potentzialak zehaztu eta baloratu dira, eta arriskuak arintzeko eta kontrolatzeko neurriak ezarri dira. Neurri horiek behar bezala berrikusi eta monitorizatu beharko dira. Gainera, Compliance Penaleko organo bat dago ezarrita, eta beharrezkoak diren baliabideez hornituko da, sistema diseinatzeaz, ezartzeaz, kudeatzeaz eta haren eraginkortasuna egiaztatzeaz arduradadin. Organo horrek independentzia, gaitasun eta aginterik handiena izango du bere funtzioa behar bezala bete ahal izan dezan. Organo horren esku egongo da sistemaren jarraipena eta kontrola egitea, eta Organo horrek bermatuko du sistema eraginkorra dela gure helburuak eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

Politika honen mende dagoen pertsona orok nahitaez bete beharko du politika hau eta, gainera, detekta dezakeen ez-betetzeen edo arrisku penalen edozein egintza edo jokabide susmagarriren berri eman beharko du. Horretarako dugun Barneko Informazio Sistemaren bidez, balizko ez-betetzez gain arlo horretako edozein alderdiri buruzko kontsultak eta zalantzak helarazi ahal izango dira. Sistema horren erabiltzaileak erabateko konfidentziasunez tratatuko dira, fede onez egindako erabileraren ondoriozko errepresaliarik izan ez dadin. Jasotako jakinarazpenak, bestalde, ezarritako barne-prozeduraren arabera bideratu eta kudeatuko dira.

Politika hori ez betetzeak eta hura hedatzen duen Compliance Penaleko Sistemaren betekizunak ez betetzeak —bereziki gure Jokabide Kodea ez betetzeak— barne- eta/edo kanpo-ondorioak izan ditzake. Ondorio horiek aplikatu beharreko araudia errespetatuko dute eta gertaeren larritasunaren arabera izango dira, berdinak hartzaile guztientzat.

Hori jasoaraz dadin, sinatzen dute Idiazabalen, 2024ko urtarrilaren 24an.

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Aritz Irastorza', enclosed within a circular stamp or seal.

Aritz Irastorza
Kontseilu Errektoreko Presidentea